# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-1502

2/2001 DEKRETUA, martxoaren 19koa, lehendakariarena, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetara dei egiten duena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 7.c) eta 50. artikuluek lehendakariaren esku uzten duten ahalmenari eutsiz, eta Jaurlaritzak 2001eko martxoaren 13an egindako bilkuran aztertu ostean, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetara dei egitea ebatzi dut. Xedapen horietan ezarritakoa aintzat hartuz, eta Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 46. artikuluan —ekainaren 19ko 15/1998 Legez emandako erredakzioa— eta gainerako lege aplikagarrietan xedatutakoaren arabera, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Eusko Legebiltzarra desegin eta haustekundeetara dei egitea.

1.– Desegin egiten da 1998ko urriaren 25ean aukeratutako Eusko Legebiltzarra.

2.– Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetarako deia 2001eko maiatzaren 13rako egiten da.

*2. artikulua.–* Legebiltzarkide kopurua.

Hauteskunde barruti bakoitzeko 25 legebiltzarkide hautatuko dira, horixe baita Autonomia Estatutuaren 26. artikuluan eta ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 10. artikuluan ezarritakoa.

*3. artikulua.–* Hauteskunde kanpaina.

Ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 68.2 artikuluan xedatutako moduan, hamabost egun iraungo du hauteskunde kanpainak. Apirilaren 27tik maiatzaren 11ra arte iraungo du kanpainak, egun biok barruan direla.

AZKEN XEDAPENA

Ekainaren 15eko 5/1990 Legeko 46.3 artikuluan xedatuta dagoenez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko martxoaren 19an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-1502

DECRETO 2/2001, de 19 de marzo, del Lehendakari, por el que se disuelve el Parlamento Vasco y se convocan elecciones.

En ejercicio de la facultad que atribuyen al Lehendakari los artículos 7.c) y 50 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, efectuada la preceptiva deliberación del Gobierno en reunión celebrada el día 13 de marzo de 2001, he resuelto disolver el Parlamento Vasco y convocar elecciones. En consecuencia, en virtud de los preceptos citados y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 46 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco, en la redacción dada por la Ley 15/1998, de 19 de junio, y demás legislación aplicable,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Disolución del Parlamento Vasco y convocatoria de elecciones.

1.– Queda disuelto el Parlamento Vasco elegido el día 25 de octubre de 1998.

2.– Se convocan elecciones al Parlamento Vasco que se celebrarán el domingo día 13 de mayo de 2001.

*Artículo 2.–* Número de parlamentarios y/o parlamentarias a elegir.

De acuerdo con lo establecido en los artículos 26 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y 10 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, se elegirán 25 parlamentarios y/o parlamentarias por cada circunscripción electoral.

*Artículo 3.–* Campaña electoral.

De conformidad con el artículo 68.2 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, la campaña electoral durará quince días. Comenzará a las cero horas del día 27 de abril y concluirá a las veinticuatro horas del día 11 de mayo.

DISPOSICIÓN FINAL

Con arreglo a lo dispuesto en el artículo 46.3 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco, al presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 19 de marzo de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.